

2018ko MARTXOAREN 26ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Christian DEVEZE jauna mahaiburu, 2018ko martxoaren 26an, astelehenarekin, 19:00etan.

Hor zirenak: Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, Anne-Marie Pontacq anderea, axuantak; Vincent Bru jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othateguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea, herriko kontseilariak.

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Bernadette Jougleux auzapez anderea, Vincent Goytino jauna, Jean-Jacques Lassus jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Bernadette Jougleux andereak Christian Devèze jaunari ahalordea eman zion; Vincent Goytino jaunak Roger Barbier jaunari; Jean-Jacques Lassus jaunak Pascale Lespade andereari; Carmen Gonzalez andereak Christiane Hargain-Despéries andereari; Pascal Bourguet jaunak Jean-Noël Magis jaunari.

Devèze jaunak bilkura hasi du erranez auzapez andereak ezin etorria jakinarazi zuela.

1 - Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari izendatua izan da.

2 – Azken bilkurako agiriaren onartzea.

Devèze jaunak Herriko kontseilariari galdegin die oharrik ba ote zutenetz 2018ko martxoaren 12an iragan azken bilkurako agiriari buruz.

Oharrik ez baitzen, aitzineko bilkurako agiria aho batez onartu da.

3 – Tokiko zergak: tasaren finkatzea.

Devèze jaunak oroitarazi du aitzineko urteetan bezala Herriko Etxeak lekuko hiru zergen tasaren emendioa 2017ko inflazioan mugatu nahi zuela, hots, % 1,20-etan. 2017an indarrean ziren tasak hauek ziren: % 11,03koa zen bizitegi-zergarentzat, % 10,44 funts eraikiarentzat, % 24,44 eraikia ez den funtsarentzat. Emendioaren ondotik, tasa horiek horrelakoak lirateke:

- % 11,6 bizitegi-zergarentzat (+% 0,1)
- % 10,57 eraikia den funtsarentzat (+ % 0,1)
- % 24,73 eraikia ez den funtsarentzat (+ % 0,3)

2017ko oinarri errealean arabera kalkulatu da, hiru ardatz horietan igurikatzen den zerga-produktua 1.895.213 €koa litzateke, hots, 23 K€ko emendio orokorra baino gutiago.

Devèze jaunak zehaztu du heldu diren hiru urteetan bizitegi-zerga desagertuko dela gobernamenduak hala erabaki baitu.

Hiriart-Urruty andereak seinlatu du bere taldeak kontra bozkatuko duela, emendio hori ttipia bada ere, 22 K€ gehiago bakarrik ekarriko dituela sei milioi euroko aurrekontuan. Behar da jakin orokorrean lansariak ez direla emendatu eta familientzat karga bat gehiago dela.

Devèze jaunak erantzun dio Herriko Etxeak ez zituela erregulariki funtzionamendu-karguen emendioak pairatu, eta aldi berean inflazioaren bilakaera segitzeko “kuraia” ez ukan. Hobe da gutieneko emendio bat aplikatzea ez eta jarraipenik gabeko mugimenduak sortzea, inflazioa arras geldirik balego salbu. Eta erregulariki hori egin da Kanbon.

Familia pobreenei dagokionez, Devèze jaunak ohartarazi du jadanik bizitegi-zerga dispentsak badituztela, eta aurreikusia dela heldu diren hiru urteetan ere ukanen dituztela.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoak onartua. Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak kontra bozkatu dute.

4 - Diru-laguntzak elkarteei.

Devèze jaunak jakinarazi du herri kontseilari bakoitzak errezibitu duela 2018ko proposatu diru-laguntzen zerrenda. Diru-laguntzak egonkor mantendu dira, zaila baita emendio adierazgarrien aurreikustea lekuko zergen tasa egonkorra den ber, eta gainera tasa horien emendioaren kontrako bozka bat badelarik.

Aïçaguerre andereak ohartarazi du joan den urteko taula hobeki egin zela eginak ez ziren galdeak kolore batez seinlatuak baitziren, eta aurten ez dela hala. Gainera, seinlatu du Turismo Bulegoko dosierrari so egitera etorri zela larunbat goizean, bereziki abenduaren 31n zerratu kontuei. Dossier horretan 2016ko kontuak ziren, 2017koak ez baitziren oraino zerratuak; eta ulertzen du, baina Herriko Etxeak jakinarazten ahal zion ez zedin deusentzat joan Herriko Etxeraino, eta ez zitzaizkion 2016ko kontuen fotokopiak egin, 2016ko dosierra Turismo Bulegoko webgunean kausi baitaiteke. Gehitu du bere taldeak diru-laguntza horren kontra bozkatuko duela alde batetik esplikatzen duen arrazoiarengatik, eta beste alde batetik bere taldea herriko Turismo Bulego baten mantentzearen kontra baitzen.

Devèze jaunak erantzun dio iduritzen zaiola diru-laguntzen artikuluari dagokion araua arrunt errespetatua dela.

Turismo Bulegoari dagokionez, Aïçaguerre andereak kasik erantzun dio bere oharrari. Alabaina, kontuak abenduaren 31n zerraten direlarik, zaila da kontuen aurkeztea kontu-mandatariari igorri aitzin.

Irastorza jaunak gehitu du Biltzar Nagusia urtero bezala maiatzean iraganen dela, kontu-mandatariak kontuak ikertu ondoan. Diru-laguntzari dagokionaz, zehaztu du zenbatekoa ageri dela Herriko Etxearekin izenpetu hirurteko hitzarmenean (2017-2019).

Aïçaguerre andereak zehaztu du hitzarmen horretan Turismo Bulegoak Herriko Etxeari hitzeman duela iragan urteko bilana lehen hiru hilabetekoan aurkeztea. Horregatik du bilana galdegin. Diru-laguntza 195.000 eurokoa da, eta ez da guti.

Devèze jaunak proposatu dio haren galdeak goizago egitea heldu den aldian, erantzun zehatzagoa ukaiteko gisan.

Aïçaguerre andereak erantzun dio bere galdea bere taldearen bilkuraren ondotik egina izan dela.

Devèze jaunak baieztatu du galdera horri erantzuteko kanpoko erakunde bati behar zela dei egin, eta, beraz, denbora gehiago behar zela.

Aïçaguerre andereak gehitu du heldu den urtean galdea 2018ko azaroan eginen duela.

Barbier jaunak seinatu du ez duela Sukilari emanen den diru-laguntza bozkatuko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Emaitzak ez ote duen diru-laguntzarik galdegin.

Lespade andereak erantzun dio lau aldiz sartu dela elkarte horrekin harremanetan. Diru-laguntza eskaera sinadurarik eta bilanik gabe aurkeztu du.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du diru-laguntza eskaerei so egin diela eta ohartu dela FNACak ez zuela deus galdegin, ez zuela bilanik aurkeztu eta hala ere 430 €-ko diru-laguntza ukan zuela.

Devèze jaunak erantzun dio dossierrek finantza-elementuak behar dituztela ukan.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartu da, Sukila eta Turismo Bulegoaren diru-laguntzak salbu, hauek gehiengoak ditu onartu.

Kontra bozkatu dutenak: Roger Barbier jaunak Sukilaren diru-laguntzarentzat eta Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak Turismo Bulegoaren diru-laguntzarentzat.

5 – Diru-laguntzak GEUzi eta Eskolen Kutzari

Devèze jaunak proposatu du 2018an 245.000 €-ko diru-laguntza ematea GEUzi, eta 8.862 € Eskolen Kutzari.

Noblia andereak zehaztu du urte guziet bezala Eskolen Kutzarekin bildu zela urteko aurrekontuaren aurkezteko. Zehaztu du eskola publiko bakoitzari eman diru-laguntza urte guziet aldatzen dela haur-kopuruaren arabera, eta aurten kopurua emendatu dela.

Saint Jean jaunak seinatu du GEUZen aurrekontua aitzineko urtekoa baino apalagoa dela.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

6 - 2018ko jatorrizko aurrekontuen bozkatzea.

Devèze jaunak seinalatu du jatorrizko aurrekontu proposamen horren elementuak ikertuak izan direla 2018ko martxoaren 19ko Finantzen Batzordean.

➤ Aurrekontu nagusia

Funtzionamendu saila orekan da: 12.947.653 €. Funtzionamendua 6.542.758 €-koa da eta inbestimenduak 6.404.895 €-koak.

Devèze jaunak funtzionamendu saileko irabaziak aurkeztu ditu: 6.542.758 €
Funtzionamendu-irabazi errealak: 6.415.958 €, honela zatituak:

- funtzionamendu betetze balantzaren berriz hartzea: 217.195 €
- karguen arintzea: 35.000 €
- zerbitzuen produktuak: 736.600 €
- orotariko zergak: 3.417.912 €
- emaitzak, diru-laguntzak eta parte hartzeak: 1.744.301 €
- ardurako kudeaketa produktuak: 255.920 €
- finantza-produktuak: 30 €
- usaiatz kanpoko produktuak: 9.000 €

Galderarik ez baita izan, Devèze jaunak funtzionamendu saileko irabaziak aurkeztu ditu: 6.542.758 €. Funtzionamendu-irabazi errealak: 6.209.758 €, honela zatituak:

- kargu orokorrak: 1.983.525 €
- langile-karguak eta dagozkien gastuak: 2.560.000 €
- produktuen arintzea: 17.632 €
- ustekabeko funtzionamendu-gastuak: 43.898 €
- transferentzia inbertsio sailera: 350.000 €
- ardurako beste kudeaketa produktuak: 984.680 €
- finantza-karguak: 34.622 €
- usaiatz kanpoko karguak: 235.401 €

Devèze jaunak oroitarazi du ordena operazioetan, bai funtzionamenduarentzat bai inbestimenduentzat, usaiatz kanpoko elementuak badirela aurrean, eta horiek sanotze-aurrekontu gehigarriko funtzionamendu-soberakinak direla, eta gauza bera inbestimenduarentzat.

Bacardatz jaunak galdera bat egin du beste eta zeremoniei buruzko 6232. artikuluari buruz, eta bereziki artikulua horren xehetasunei buruz 2017ko kontu administratiboarentzat. Zenbait apairu 40 €-tan dira pertsonako eta beste zenbait 15 €-tan. Engaiamendu morala egin ote liteke lan-apairuentzat zenbateko bat finkatuz 15-20 €-ren inguruan, ez eta 40 €-tan?

Devèze jaunak erantzun dio 40€-ko laneko apairuak artikulua horretako aurrekontu orokorraren parte biziki ttipia direla.

Bacardatz jaunak egin txostenean, bana besteko prezioei dagokionez, harrizta da zeren eta gastuak hor ziren pertsona kopuruari konparatzen baldin bada, zenbatekoa ez baita izigarri sinesgarria. Errazki kontrola daiteke ekitaldien xehetasuna eta dagokien aurrekontua.

Bacardatz jaunak zehaztu du ez dela ekitaldiez ari, baina laneko apairuez. Apairu batzuk 15-20 €ren inguruan dira, eta beste batzuk 35-40€-ren inguruan. Ez da ekonomiak egiteaz ari, baina zuzentasunaz.

Devèze jaunak erantzun dio errezibitu pertsonen arabera zela. Herriko Etxeak pertsonalitate bat errezibitzen baldin badu edo agintearen ordezkari bat bazkaltzera gonbidatzen badu, uler daiteke apairuaren prezioa aipatu zenbatekoan izatea. Hori zer maiztasunekin gertatzen den, hori da garrantzitsuena.

Beste galderarik ez baita egin, Devèze jaunak inbestimendu-saila aurkeztu du. Hau 6.404.895 €-tan orekatzen da eta honela zatikatzen da:

Irabaziak:

- Inbestimendu betetze balantza erakarria izan da (sanotzea Euskal Elkargoari itzulia da): 1.360.370 €
- Funtzionamendu sailaren diru-transferentzia 350.000 €
- Inbertsioa uztea: 1.603.000 €
- Emaizak, kapitalak, erresalbuak: 1.356.423 €
- Inbestimendu diru-laguntzak: 996.102 €
- Maileguak eta dagozkien zorrak: 380.000 €
- Sailen arteko ordena operazioak: 333.000 €
- Ondare-operazioak: 26.000 €

Gastuak:

- Inbestimendu betetze balantza erakarria izan: 731.855 €
- Ustekabeko inbestimendu gastuak: 10.842 €
- Emaizak, kapitalak, erresalbuak: 1.360.370 €
- Maileguen ordaintzea: 476.628 €
- Immobilizazio gorpuzgabeak: 13.000 €
- Immobilizazioa gorpuzdunak: 1.356 000 €
- Abiatuak diren immobilizazioak: 2.303.400 €
- Sailen arteko ordena operazioak: 126.800 €
- Ondare-operazioak: 26.000 €

Ez da ez galderarik ez oharrik egin, beraz, Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoak onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea.

➤ **Aurrekontu gehigarria hilobi-kolunbarioentzat**

Devèze jaunak aurkeztu du hilobi-kolunbarioendako aurrekontu gehigarriaren 2018ko jatorrizko aurrekontua, eta honek sail bat besterik ez du, hala nola funtzionamenduarena, eta 27.815 €-tan orekatzen da.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

7 – Hilobi kontzesioak

Devèze jaunak seinalatu du hilobi kontzesio bat berriz hartzekoa zela. 2014ko apirilaren 7an berriz hartze administratibo bat bozkatu zen, bai eta berriz hartze materiala. Hau 2018ko urtarrilaren 24an gauzatu da.

Kontzesio horren uztea finkatu behar izan da, eta 2.300 €-tan (BEZa barne) finkatzea proposatu da.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

8 – Egur salmenta

Devèze jaunak oroitarazi du 2014ko apirilaren 28ko deliberoaren kariatara Herriko Kontseiluak egur-ezteraren prezioa finkatu zuela:

- Egur moztua: 18 €
- Moztu gabeko egurra: 14 €
- Moztu gabeko akazia: 20 €

Prezio horiek eguneratu behar dira eta Devèze jaunak tarifa hauek proposatu ditu:

- Egur moztua: 20 €
- Moztu gabeko egurra: 16 €
- Moztu gabeko akazia: 22 €

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

9 – Langile-kopuruen taula

Devèze jaunak oroitarazi du langile-kopuruen taula eguneratu behar zela 2018ko apirilaren 1ean:

Aïçaguerre andereak galdegin du zendako polizien sailean baden brigadier-buru lanpostu bat betetzekoa, jakinez jadanik hirizain bat badela.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio langile hori kontratupean dela, geldialdian den hirizaina ordezkatzeko baitu.

Devèze jaunak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

10 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23. artikuluen arabera, eta 2017ko uztailaren 22ko Herriko Kontseiluaren erabakiaren arabera, horra Devèze jaunaren erabakia hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko 2018ko otsailaren 11tik martxoaren 10era:

- Kontzesioen berritzea 30 urterentzat (kolunbarioak): 2
- Kontzesioen berritzea 30 urterentzat (hilobiak): 1

Hilobi-kontzesioek sortu irabaziak 2.130 €-koak dira.

11 – Gainerako gaiak.

- Devèze jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazi die martxoaren 28an, asteazkenarekin, 18:00etan, andere auzapezak Herriko Etxean oroitzarrean urtea abiatuko duela (Edmond Rostand eta Lehen Mundu Gerla).
- Devèze jaunak jakinarazi du Pazko kari, arroltze-ihizia martxoaren 31n iraganen dela, Arnagako lorategian.

Devèze jaunak berriz aipatu ditu oposizioak martxoaren 12ko Herriko Kontseiluan aipatu gaiak.

1º) San Josep parkeko argiei dagokienez, Bacardatz jaunak galdegin zuen Obra Batzordearen bilkura bat iraganen zenetx dossier horren aztertzeko.

Devèze jaunak jakinarazi du batzordearen bilkura horretarako deia egin dela eta 2018ko apirilaren 4an iraganen dela, asteazkenarekin, 17:30ean.

2º) Ohar bat egin zen Hulot jaunaren bulegoaren gaitasunari buruz. Hulot jauna azterketarako atxikia izan baitzen, berak gomendatu obren egiteko ere atxiki ote zitekeen?

Devèze jaunak seinalatu du lehen kontsulta bat egin dela azterketari buruz. Hiru eskatzaile izan dira lehenik; horietarik bik uko egin dute eta Hulot jauna baizik ez da gelditu azterketarako. Hulot jaunak gomendatu beharrezko obren egiteko bigarren fasean, hiru hautagai berak aurkeztu dira obren egiteko. Arrunt errespetatua izan den prozeduraren ondotik eta eskaintzak ikertu ondoan, Hulot jaunaren proposamena hautatu da ekonomikoko interesgarriena baitzen, eta MAPA batzordeak haren atxikitzea gomendatu du.

Gilles Barabant Frantziako Monumentuen Eskualdeko Kontserbatzaile eta obralari jauna MAPA batzordeak gomendatu Hulot jaunaren atxikitzearen alde zen. KAEZi galdegin zaio hautu horri buruz bere iritzia eman zezan, eta hautua onartu du, beraz, Jean-François Hulot jauna prozedura errespetatuz hautatu da.

3º) Arnagako oroitzarrearen aurrekontua: Pontacq andereak 2018ko mendeburuko animazioen aurrekontua aurkeztu du. Animazioek 17.700 € kostako dute, konpainien ostatatzea barne, eta komunikazioak 18.549 € kostako du eskuorriaren argitalpena barne (7.300 €). Hau Sud-Ouest egunkariak du zabalduko heldu den larunbateko Mag aldizkariaren bidez (2.952 €). Ondotik, sasoiaren barne ekitaldiak berriz oroitaraziko dira Sud-Ouest egunkaria eta Mag aldizkarian argitaratuz.

Aiçaguerre andereak galdegin du heldu den agorrilaren 10ean eta 11n programatu antzerkia aurrekontu horren barne ote den.

Pontacq andereak baieztatu du Arnagako antzerki-udaldia ez dela aurrekontu horretan sartzen. Aurrekontu horrek usaiak kanpoko animazioak hartzen ditu barne, haatik, komunikazio-aurrekontuak bi ekitaldiak hartzen ditu barne, bai Rostanden mendeburua bai Lehen Mundu Gerlaren mendeburua. Herriko Etxea entseatu da Kanboko kultura-leku guziak elkarretartzera bere komunikazioan.

Devèze jaunak gehitu du oroitzarre-programaren argitalpenak (16 orrialde aitzin eta gibelaldea barne) 0,146 € (BEZa barne) gosta duela pieza bakoitz, hots, 7.300 € 50.000 alerentzat. Zehaztu du Kanboko Turismo Bulegoa Pariseko 13. arrondizamenduko Herriko Etxean izan zela “Paris

en mode basque” ekitaldiaren karietara; kalitatezko eskuorri hori orduan banatu da eta jende frankok hartu dute, eta arrakasta bildu du.

Bacardatz jaunak programan ikusi du apirilaren 1ean helduko dela “Urteburu Zuhaitza” eta abenduaren 2an landatuko dela. Arbola hozitua izanen dea orduko?

Pontacq andereak erantzun dio Arnagako baratzezainen proposamena izan zela, bereziki Pantxo Azareterena. Honek, Edmond Rostanden mendeburuaren karietara, zuhaitz heldu bat jinaraztea nahi zuen, denboran Rostandek egin bezala, eta larrazkenean landatua izan zedin, Edmond Rostanden heriotzaren oroitzarrearen karietara, sasoi hori egokia baita landareen landatzeko.

Hiriart-Urruty andereak Devèze jaunak aipatu "kalitate handiko eskuorria" berriz aipatu du, baina haren taldeak aldi guzietz deitoratzen du eskuorri hori elebakarra izatea. Nork du frantsesez baizik ez argitaratzeko erabakia hartu? Zergatik ez da automatikoki elebiduna egiten, haren taldeak aspaldi honetan errepikatzen duen bezala?

Pontacq andereak erantzun dio aipatu zela eskuorria euskaraz egitea, baina pixka bat berantean egin zela, eta itzulpena egiteko denboran ez zen prest izanen *Edmond* antzerkiaren egunean banatzeko, joan den otsailaren 26an, Biarritzen.

Pontacq andereak zehaztu du aterako den dokumentazioan, eta bereziki musika eta literatura festibalarentzat, orri bat gehituko dela eta programa euskaraz emanen dela. Gainera, festibal horretan Itxaro Bordaren sorkuntza bat izanen da euskaraz eta frantsesez: Lehen Mundu Gerlari buruzko eta euskal soldaduen rolari buruzko bere olerkiak irakurriko ditu. Bestalde, Rostand programa horri buruzko beste lan bat egingen da, eta euskaraz iraganen da Herriko Etxea Euskal Kultur Erakundearengana joan baita bertsoen forma poetikoa lantzeko, eta Pantxo Etchegoin EKEko zuzendariak proposamena artoski entzun du. Iradoki du lan hori Xalbador kolegioan eramatea, Chantecler obrako bertsoak jadanik lantzen baitituzte, eta Xalbador kolegioko ikasleek emanaldi bat egingen dute urri bukaeran Arnagan, bi bertsolarik lagundurik.

Devèze jaunak Pontacq anderea eskertu du, gauza franko bide onetik ari baitira, noiztenka gauzak hobetu badaitezke ere.

4°) Hautetsien ordainsariak: Devèze jaunak jakinarazi du andere auzapezak baieztatu duela oposizioari hautetsien ordainsarien zenbateko gordin eta garbien laburbilduma ematea. Taula hori oposizioari eman dio.

5°) Manera berean, oposizioak galderak egin zituen eskola-garraioei buruz: nork zer egiten du? nork zer pagatzen du? nor dira hartzaileak? Herriko Etxea zein organismo edo sindikaturi zuzentzen da orain?

Devèze jaunak oposizioari eman dio eskola-garraioen laburbilduma, historikoarekin eta egungo egoerarekin.

6°) Azkenik aipatu dira Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroan ibiltzen diren kuristen haurrak, eta bereziki prezioak.

Devèze jaunak seinlatu du erabakia duela urte franko hartu zela. Alabaina, Termek erabaki zuten kuristen haurrak ez zituztela gehiago animatzaile baten bidez kudeatuko. Erabaki zen kurista-familia horiek, eta bereziki artamenduak irauten duen hiru asteetan haien haurrak atxikiarazteko zailtasunak zituztenek, kanboarren tarifa bera ukaiten ahalko zutela. Ukan estatistiken arabera, bospasei haur bakarrik dira kasu horretan uda guzietz...

2018ko martxoaren 22an igorri email batean, Aïçaguerre andereak zenbait elementu galdegin ditu:

1º) Herriko Etxearen eta Turismo Bulegoaren artean izenpetu helburu eta molde hitzarmena 2017 eta 2019 garaiarentzat, bai eta Turismo Bulegoaren jarduera-txostena eta urteko kontuak: dokumentu horiek Aïçaguerre anderearen esku ezarri dira eta so egin die.

Devèze jaunak oposizioak andere auzapezari egin galdeak errepikatu ditu:

1º) “2018ko otsailaren 9ko Komunikazio Batzordeko txostenean idatzia da Kanboko Herri Etxearen eta Laugarren begia elkartearen (Marc Mittoux) artean zerbitzu-hitzarmen bat egin dela argazkiak egiteko Herriko Etxeak antolatu ekitaldietan, eta argazkitegi bat antolatzeko. Hitzarmen horren kopia bat ukan nezakea?”

Devèze jaunak seinalatu du ez dela hitzarmenik. Hitzarmen hori ez da izenpetu, baina ekainaren 4an iraganen den Herriko Kontseiluan aurkeztuko da, menturaz 2018ko uztailaren 1ean aplikatzeko.

2º) “GEUZeko Administrazio Kontseiluak nahi luke urgentziazko bizitegi bat sortu Kanbon; zer erabaki du gehiengoan den taldeak?”

Devèze jaunak seinalatu du gehiengoan den taldeak ez duela gai hori oraino landu. Andere auzapeza Henri Saint Jean GEUZeko lehendakariordearekin eta zuzendariarekin bildu da, eta mementoan gehiengoan den taldeak ez du erabaki finkorik hartu. Baina ez du erran nahi urgentziazko apartamentu hori ez dela adostuko.

Saint Jean jaunak gehitu du horri buruz gogoetatzen ari zirela.

Beyrie andereak zehaztu du galde hori aldi bat baino gehiagotan egin dela GEUZaren Administrazio Kontseiluari. Zinezko beharra da, nehorik ez du dudan ezarri. Beraz, galde hori laster tratatu behar liteke.

Saint Jean jaunak seinalatu duen bezala, Devèze jaunak baieztatu dio gehiengoan den taldeak galde hori ikertuko duela. Aldeko eskualdea eta kontrakoa haztatu beharko da, bai eta horrelako erabaki baten ondorioak.

Aïçaguerre andereak gehitu du THPrean aurkezpen-txostenean idatzia dela Kanboko Herriko Etxeak urgentziazko bizitegi bat baduela.

Devèze jaunak erantzun dio hark dakiela, urgentziazko bizitegirik ez dela.

3º) “Arnagako webgunea berriz egiten ari dira. Ohartu gara “hizkuntzak” fitxan frantsesa, gaztelera, ingelesa, alemana eta errusiera agertzen zirela (itzulpenak eginak dira), haatik euskararik ez da. Nahi genuke jakin gehiengoan den taldeak zer dioten horri buruz, guretzat onartezina baita eta gure lurraldean plantan ezarri ekimenekin arrunt kontraesanean.”

Devèze jaunak seinalatu du itzulpena Googlek duela zuzenki egiten gaztelarrera, ingelesera, alemanera eta errusierara. Euskarazko itzulpenari dagokionaz, Errobi Lurralde Eremuarekin ikusi behar da, gainerakoarentzat bezala. Horregatik, segidan ireki da webgune berria, eta EUS fitxa berantago ezarriko da, itzulpena bidean baita.

Bru jaunaren ustez euskararen presentzia arras egokia da, turistikoki ere bai.

Devèze jaunak lasaitu du, erranez ez dutela webgune berriaren ardura duten pertsonak ahantzi, baizik eta euskarazko itzulpen bat egiten den aldi oroz bezala, denbora behar dela.

- Hiriart-Urruty andereak berriz aipatu du Herriko Kontseiluan jadanik aipatu gai bat: Kanboko desfibrilagailuak. Nahi luke bereizkuntzetatik haratago joan daitezen, eta gai hori zinez gogoetatua izan dadin, herri barnean desfibrilagailuak izateko gisan, bat Herriko

Etxean eta beste bat eliza inguruan. Egunkarian irakurri duen berri bat aipatu du: gizon bat salbatua izan da desfibrilagailu bat baitzen hurbil. Tresna mota hori laster erabiliz geroz, bizirik ateratzeko mentura %4tik %40ra igaten da, eta inguruko herrietan kanpoan instalatuak dira.

Devèze jaunak erantzun dio arazo hori jadanik aipatua zuela harekin ekitaldi batean. Ez daki gogoeta zertan den, baina baieztatu dio gehiengoan den taldeak jadanik aipatua duela gai hori eta galdez zeudela ea desfibrilagailu hori Herriko Etxearen barnean edo kanpoan ezar, kanpoan ezarriz geroz makurrak jasan bailitzake. Egiazki horri buruz gogoetatzen ari dira, beraz.

- Hiriart-Urruty andereak galdegin du THParen dosierra zertan zen, eta bereziki pertsona publiko asoziatuen kontsulta. Herriko Etxeak berriak ba ote ditu?

Bardin jaunak erantzun dio erantzunak apirilaren 24a arte eman daitezkeela. DNLOGZBK (Departamenduko Natura, Laborantza eta Oihan Guneen Zaintza Batzordeak) Herriko Etxea deitu du eta bere iritzia eman: LuKEk apirilaren 6an adieraziko du iritzia, eta egun berean, Herriko Etxea deitua da THPri buruz mintzatzeko. Beste pertsona publiko asoziatuei dagokienez, Herriko Etxeak ez du beste deirik errezibitu.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du nor diren pertsona publiko asoziatu horiek.

Bardin jaunak erantzun dio LuKE, LIDZ, DNLOGZB, Departamendua, Laborantza Ganbara, Ofizialeen Ganbara eta MIG direla. Erakunde horiek beren iritzia emanen dute, eta ondotik, Herriko Etxeak lan egingen du bildu oharren arabera.

- Bacardatz jaunak gogoan hartu du Obra Batzordea bilduko dela, bereziki San Josep parkeko argiei buruz hitz egiteko, baina erran du domaia zela eskaintza-deialdiaren kontsulta martxoaren 25ean iragatea eta batzordea apirilaren 4an biltzea. Edozein gisaz, dosierra hetsia da, alta galdegin zuen horretaz hitz egitea kontsulta abiatu aitzin. Ez da, beraz, horretaz eztabaidatzen ahalko batzordean. Hau lehenago biltzen ahalko zen.
- Devèze jaunak oroitarazi du Frantziako lehendakariak omenaldi nazionala egingen duela martxoaren 28an, asteazkenarekin, 11:30ean, Pariseko Invalidesetan, Arnaud Beltrame Lotinant-Koronelaren oroitzapenetan. Behariei proposatu die minutu bateko isiltasuna egitea.
- Aïçaguerre andereak seinatu du 48 oren gabe, Pantxo Azarete oporretan izanen dela erretreta hartu aitzin, eta Nahi Dugun Herria taldeak erretreta goxoa opa diola.

Devèze jaunak erantzun dio Herriko Etxeak berantago omenaldia egingen diela zenbait egunen buruan herriko zerbitzuetatik joanen diren bi langileei.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluaren bilkura 20:30ean bururatutzat eman du.